

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2020ko urriaren 14a, asteazkena.

2020ko azaroaren 11ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) (lan-arrazoiengatik), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) (osun-arrazoiengatik) eta Eduardo Inclán Gil (PP) (familia-arrazoiengatik).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde aurretik eta arauzko publikitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. Aurreko bilkurako 2020ko irailaren 16ko akta onestea.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Jaiak, Obra eta Zerbitzuetako Batzordea.**
 - 3.1. Udal espazioak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzua kudeatzeko agindua INDESA 2010 SL enpresari, 2020ko azarotik 2021eko urrira.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Behin-behinean onestea 2021 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldaketa eta Udal Zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskal orokor bat ezartzea.
7. Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egitea.

Presazko izapidez sartutako gaiak

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Aurreko ohiko bilkurako 2020ko irailaren 16ko akta onestea.

Alkate-udalburuak aktari buruzko oharrak egiteko gonbita egin die zinegotziei. Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Aurreko ohiko bilkurako 2020ko irailaren 16ko akta onestea.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH

Udalbatzaren 2020 - X - 14ko bilkuraren akta;

Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazlariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoen berri: 185/2020 eta 221/2020 bitartekoak. Idazkari jaunak ohartarazi du 216 dekretua bi aldiz transkribatuta dagoela (216 eta 217), ondorioz, 217. dekretua baliogabetuko da.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3 Kultura, Turismo, Jaiak, Obra eta Zerbitzuetako Batzordea.

3.1 Udal espazioak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzua kudeatzeko agindua INDESA 2010 SL enpresari, 2020ko azarotik 2021eko urrira.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Udalak garbitu behar dituen udal-espazio eta espazio guztiak garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzua kudeatzeko agindua artikulatzen duen hitzarmenaren zirriborroa.
- 2) Aplikatzekoa da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua.
- 3) Informazio Batzordearen bilkuran egindako erabaki-proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) INDESA 2010 SLrekin sinatutako hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez, udal-espazioak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzua kudeatzeko agindua artikulatzen da, besteak beste, honako baldintza hauen arabera: Aginduaren prezioa 156.426,32 eurokoa izango da (113.866,72 euro 2019an), eta hilero urteko zenbateko osoaren hamabirena fakturatuko da, eta BEZak ez du eraginik izango, ez delako mendeko eragiketa. Kontratuak urte bateko iraupena izango du. Agindua luzatu ahal izango da. Luzatzeko berariaz erabaki beharko dute bi aldeek kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago, gutxienez.
- 2) Agindutako zereginen baldintzak, alderdi teknikoak eta maiztasunak onestea. Udal-teknikariek ikuskatu beharko dituzte, eta gomendioari erantsiko zaizkio.
- 3) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburuari ahalmena ematea dagokion hitzarmena formalizatzeko.
- 4) ALHAOn iragarkia txertatzea.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Alkate jn.: Ohartarazi behar da, agian, garbiketa-eskakizunek zerbitzuaren orduak handituko dituztela, batetik ikastetxe publikoetako pandemiaren protokoloengatik eta bestetik osasun-zentroa handitzeagatik, Sindikatu Etxeko pediatriako kontsultekin.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Erabaki ona iruditzen zaigu. Urteak dira SERECO alde batera uzteko eskatzen ari ginela, eta, gainera, aurrezpena ekarriko dio udalari.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

6.1. Behin-behinean onestea 2021 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzea eta Udal Zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskal orokor bat ezartzea.

Alkate jn.: Zaborren tasa (HHS) eguneratzen da, defizita txikia izan dadin. Ikusten duzuenaz, 1.378,06 euro galtzen ditugu teknikari ekonomikoek egindako balioespenarekin.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Dagoen egoerarekin ez gaude jendeari zergak igotzeko. Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Gure taldea pixkanakako igoeren aldekoa da, zerbitzuen kostua xurgatzeko, baina hau oso handia da, % 17. Eta egoera ez da egokiena tasa igotzeko. Desorekarik ez egoteko kezka ulertzen dugu, eta horregatik abstenitu egingo gara gai honetan. Ohar bat: Isurketen kanonean Gardelegi dio eta Jundiz esan behar du.

Aurrekariak:

1. 2021 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeko eta Udal Zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskal orokor bat ezartzeko espedientea.
2. Aldaketak ordenantza fiskalei eragiten die:
 - 4. ordenantza fiskala, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
 - 9. ordenantza fiskala, hiri-hondakin solidoak (HHS) biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa.
 - 11. ordenantza fiskala, administrazio-agiriak emateagatiko tasa.
 - 13. ordenantza fiskala, hirigintza-lizentziengatiko tasa.
3. Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 14., 15. eta 16. artikulua aplikatu behar dira.
4. Esku hartzeko txostena eta idazkaritzaren txostena jasota daude.
5. Ekonomia eta Ogasun Informazio Batzordean egindako proposamena, 2020ko urriaren 7koa.

Hau erabaki da:

- 1) Behin-behinean onestea 2021 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzea eta Udal Zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskal orokor bat ezartzea. gainerako ordenantza fiskalen indarraldia luzatzea.
- 2) Jendaurrean jartzea, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitako moduan eta epeetan.

- 3) Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Behin betiko onespeneraren erabakia arauzko moduan eta epean argitaratzea.

Aldeko 4 (lau) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE).

Aurkako boto 1 (bat): Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

3 (hiru) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP).

Gai-zerrendako gaiak aztertu ondoren, eta galde-eskeen txandara pasatu aurretik, Villanueva Gutiérrez jaunak (EH Bildu Oion) honako gai hau presazko izapidez sartzeko eskatu du: Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egitea.

Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar da.

Gaia presazko izapidez sartzea bozkatu da: Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egitea.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egitea gai-zerrendan sartu da premiazko izapidez, eta ondoren horri buruzko eztabaidaren eta bozketaren berri eman da.

7. Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egitea

Duque Sáenz jn. (EH Bildu Oion): Uko egiten diot ezin dudalako zinegotzi-lana eta ordezkari sindikal gisa egiten dudan lanarekin bateratu. Arlo pertsonalean gustura aritu naiz Jose Manuelekin eta gainerakoekin.

Alkate jn.: Nire desiorik onenak.

Gamarra jn. (PSE-EE PSOE): Zure iritziak eta erabakiak ohoratzen zaituzte.

Uko egitea euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu da.

Aurrekariak:

- 1) 2020ko urriaren 14an, Borja Duque Sáenz jaunak zinegotzi izateari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen.
- 2) Honako hauek aplikatu behar dira:
 - I. 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundeen Araubide Orokorriari buruzkoa, 182. artikulua
 - II. Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduko 9.4 artikulua.
 - III. Instrukzioa, 2003ko uztailaren 10ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, tokiko ordezkari-tzita-karguak ordezkatzeari buruzkoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 171. zk., 2003ko uztailaren 18koa).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, Borja Duque Sáenz zinegotziaren uko egiteari dagokionez, kargua hutsik dagoela adierazi du eta Hauteskunde Batzorde Zentralari ordezkapen-prozesua hasteko eskatu dio, hutsik dagoen kargua beteko duen hautagaiari egiaztatzea emateko; hautagai-zerrendaren arabera, Eva María Frías Del Val da (3. hautagaia).

Azken puntua) Galde-eskeak

Alkate jn.: Daniel Salvador Adán zinegotziaren ordezkari gisa diharduen pertsona batek idatziz egindako galdera batzuk daude. Hori ez dut inoiz ikusi...

Idazkari jn.: Prozeduraren legearen 5.3 artikulua arabera, eskabideak beste pertsona baten izenean aurkezteko, ordezkari egiaztatu beharko da.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Ez eman buelta gehiago, arazo bat izan dut sinadura elektronikorekin. Hurrengo bilkuran horiek eta beste bost aurkeztuko dira. Ez dut ulertzen zertarako deitu didazun 15:30ean.

Alkate jn.: Ea zerbait gertatzen zitzaitzun edo bilkurara etortzekoa zinen jakiteko, ez bainuen ulertzen Tortosa jaunak galderak aurkeztu izana.

Beloqui Unzurrunzaga jn.: Idazkariak partzuergoari buruz egindako txostenaren inguruan galdetu du.

Gamarra jn.: Kezka agertu du Santa Maria kaleko obragatik eta Batzar Nagusien kaleko ezpondaren utzikeriagatik.

Alkate jn.: Obra atzeratu egin da zoladuraren hornidura-arazo batengatik. Ezpondari buruzko kexa berdeguneetako kontratistari helaraziko zaio.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Noiz izango dugu taldeok idazkariaren txostena?

Alkate jn.: Agindua emango dut aste honetan izan dezazuen.

Ez da galdera gehiagorik egin.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2020ko urriaren 23an.

Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza.